



Sagrado Corazon Ikastetxea

2017-11-15

Guraso eta seme-alaben arteko harremonak.

GAKOAK

Mugak jartzeko, ahal dodala jakin behar dot.

Ez dago ondo gaztetxoak etxeetako, auzoetako, herrietako jabeak izatea.

Gaztetxoak dana dakiela pentsatu arren, gauza asko daukagu eurei irakasteko.

“**Begiradaren**” ahalmena. Ez da bardina begiratzea eta ikustea. Ez doguz “**begiratu**” behar gure seme-alabak arazoak daukaguzanean bakarrik.

Begiratu miresteko.

Begiradak alkatu egiten dau, zeozer alkarregaz begiratzen badogu oraindik gehiago alkartzen gaitu.

Seme-alaba “korreoa”: “esaiozu zure amari” – “esaiozu zure aitari”.

Danok gara desbardinak seme-alaba bakoitzagaz. Seme-alaben artean aldatu egiten gara, nagusiagoak gara, desbardin pentsatzen dogu, aldatzen gara, gure inguruko mundua aldatzen da eta eragina dauka guregan: ez doguz danak bardin hezitzen.

Seme-alabek gurasoen egoera emozionalak “usaintzen” dabez, nahiz eta honeek benetako egoera ez azaleratu.

Garrantzitsuena gauzak zein egoera emozionaletik esaten diran da.

Gurasoek lan taldea egin behar dabe maisuekaz. Ez gurasoek ,ez irakasleek ,ez doaz ikasle/seme-alaben aurka.

Jarrera eta portaeren aurka goaz, ez pertsonen aurka.

Gurasoek eta irakasleek batera “begiratzen” badabe, seme-alaba/ikasleek talde moduan ikusiko gaitue. Beraz garrantzitsua da jarrera eta portaerak biok batera indartzea.

Gaztetxoa lehenago pertsona da eta gero ikasle.

Pertsonetan pentsatu behar dogu. Baleiteke ikasle ona izatea baina pertsona okerra eta alderantziz.

Es daigun gehiago pentsatu seme-alabekaz daukaguzan arazoan erruduna eskola dala. Es daigun gehiago pentsatu ikasleekaz daukaguzan arazoan errudunak gurasoak dirala. Erru gitxiago eta lantalde gehiago.

Beste batzuren liderra izateko, norberaren liderra izan behar da lehenago.

Itzi deiogun beste batzuk egiten dabena begiratzeari. Pentsatu daigun zer egiten dogun geuk.



Emozioak bihozkadak, arnasketa, gorputzaren tenperatura erregulatzen dauazan motorra dira. Amorrua, nazka, poztasuna, jakinmina... moduko emozioak.

Seme-alabengan boterea eukiteko, geure emozioak kudeatzeko ahalmena eduki behar dogu. Zeozer esatekotan esan deiegun emozio egoki betetik. Ez dago ezer txarragorik amorrutik abiatuta zigortzea eta handik hiru minututara barkamena eskatzea baino.

Egoera emozionalaren garrantzia: Jakinmina, Miresmena, Ziurtasuna, Poztasuna.

Berba gitxiago eta egin gehiago, baina koherentziaz egin.

Gure seme-alabek kontrola eukitea gura badogu, gurasoek gure emozioak kontrolatu behar doguz. Garrantzitsua da esaten doguna eta sentitzen doguna bardinak izatea.

Emozioak:

Desatseginak	Mistoak	Atseginak
Bildurra-Amorrua-Nazka-Tristura	Ezusteia-Errua	Jakinmina-Miresmena-Ziurtasuna-poztasuna

Esaten dana baino garrantzitsuagoa da zein emoziotik esaten dan.


“Porro” baten ez dago ezer onik.

Gaztetxoia “eta-eta-eta-eta-eta” egoeran dago (dana gura dau). Nagusia “edo-edo-edo-edo-edo” egoeran (aukeratu egin behar dau). Ez da “eta-eta-eta-eta-eta” egoeran jarri behar, bestela galtzekoak daukaz gaztetxoagaz.

Zelan jakingo dabe gaztetxoak zer egin euren buruagaz, gurasoek ez badakie zer egin eurekaz?

Ez eizu zeuk egin seme-alabek egiterik ez dozuna gura.

Gure seme-alabak ohitu daiguzan pentsatzera ezin dabela euki gura daben guztia.



Eskolara ez doaz lagunak egiten, ikaskideekaz lan egitera baino. Ikastetxean sortu egiten dira lagunak.

Gurasoak ez dira “kolegak”. Desbardindu daiguzan dibertsioa eta hezkuntza, nahiz eta dibertituz hezi leiteken.

Ez dago gizarterik, ikastetxerik, erakunderik... pertsonak dagoz.

Iragana pasatu zan, etorkizuna etorri egingo da, baina pasatutakoaren eta etorri daitekenaren emozioak ORAINA dira. Bizi eizu ORAINA.

<http://robertoaguado.com/>

<http://emotional.net/about/vec/>